


EL CONTADOR DE HISTORIAS



Osama AEBn bizi den gazte libanoarra da. Aita ospitalean hilzorian dagoelako berria jaso eta Beirutera itzuli da. Bueltan aurkitu duen Beirut Osamak gogoan duen Beirut haren isla baino ez da, baina, garai hartan bezala, lagunak eta senideak beti bizirik mantendu dituzten kontuei oraindik tinko eusten diete: esamesak, poztasuna, eta beste ezer baino gehiago, istorioak.

Osamaren aitona, sendiaren sortzailea hakkawati (ipuin kontalaria) izandakoa da. Kurdistan turkiarretik Libanora heldu zeneko oroitzapenak, Al-Kharrat abizena eskuratu zueneko edo guda turkiarren oroitzapenak Ekialde ertaineko ipuin klasikoekin elkartu ditu. Idazleak Abraham eta Isaac, Fatimaren alegia eta Baybarsen istorioa (gurutzadetan

hainbat bataila irabazi zituen printze-esklaboa) ezin hobeto berregin ditu eleberri honetan.

Rabih Alameddineren azken eleberri hau liluragarria da, aberatsa, irakurketa anitzekoa. Liburu honetan Alameddinek istorioak azaltzeko trebezi handia agertu du. Ipuin arabiar klasikoak, gaur egungo umore zorrotzaz kontatuta, eleberriaren pertsonaia nagusiak ospitalean egin duen egonaldi garrantzarekin uztartzen ditu. Al-Kharraten istorioak beste ipuin batzuekin batera egiten du aurrera, Baybars, errege-esklaboaren istorioa edo Fatima esklaboaren istorioarekin batera. Fatima emakume azkarra eta baliabide handikoa da, infernuko bihotzeraino heldu eta bizirik itzuli zena. Istorio guztiak nolabaiteko banaketaren gaiarekin lotuta daude: seme-alaba eta gurasoen arteko banaketa, senar-emaztearen artekoa, neba-arreben artekoa. Alameddinek kultura arabiarren zoko eta zirrikitu guztien argazki paregabea sortu du liburuan, eta beste kulturetan gertatzen den bezala, hau ere kontraesanez jositako dagoela erakutsi digu. Ipuin kontalaria eleberri gazi-gozoa eta konplexua da, eta bertan Baybars eta Fatimaren abentura-sortak erresonantzia-kaxa baten lana egiten du, ipuin arabiar hauek Al-Kharrat sendi bitxi eta paregabearen historia apalaren erresonantzia-kaxa dira eta.

Alameddine, Rabih



Biografia.

Rabih Alameddine Jordanian jaio zen 1959an, baina libanoarra da. Kuwait, Libano eta Ingalaterra artean eman zuen haurtzaro eta nerabezaroa, eta 17 urte zituela Kaliforniako Unibertsitatean ikasten hasi zen, Los Angelesen.

Urteak eman zituen bere bokazioa zein zen ezin asmatu. Kalifornian ingeniaritzan lizentziatu zen matematikak gustuko zituelako, baina laster utzi zuen. Psikologia klinikorako interesa piztu zitzaion, baina hura ere baztertu eta urte batzuetan pintatzeari ekin zion. Arlo honetan ere ez zen pozik ibili. Egun batean, nekatuta eta deprimetuta, idazten hasi zen, eta bizitza osoa horretan eman nahi zuela jakin zuen. Hasiera batean "I, the Divine" eleberria eta ipuin-bilduma bat argitaratu zituen. Orain, 8 urtez lanean jotake aritu ondoren, "Ipuin kontalaria" eleberriaren bidez, bere balioa erakutsi du, eta kritiko zorrotzenek zein irakurleek eleberri honetan egin duen lana txalotu dute. Liburua 10 hizkuntzatara itzuli da eta nazioarteko prentsak goretsi egin du, eleberri hau XXI. mendeko "Mila gau eta bat gehiago" liburua izango da.

Ingeniaritzan graduatua da eta marketinean masterra du. Hainbat lanbide izan ditu: ingeniari, aholkulari, zerbitzari, irakasle, margolari eta eskultore. "Kooloids: The Art of War", kritikaren txaloak jaso dituena, eta "The Perv"-en egilea da. Guggenheim fundazioak beka bat eman dio eta gaur egun San Francisco eta Beirut artean bizi da.